

Irune Merino Bastida

E maila • 3 saria

Kaixo!

Irune Merino Bastida nauzue, 10 urteko neska beasaindarra. Murumendi eskolan ikasten dut, 5. mailan. Nire zaletasunen artean futbolean jolastea, igeriketa egitea, marraztea eta irakurtzea dira. Ilusio handia egiten dit saritua izateak eta ea ipuina zuen gustukoa den!



PANTAILAREN BESTE ALDEAN

Iraia 10 urteko neska bat zen. Asko gustatzen zitzaion marraztea eta musika entzutea. Bere urtebetetzerako mugikor bat eskatu zuen, baina bere gurasoek ez zioten oparitu behar.

Bere gelako gehienek mugikorra zuten. Batzuk beren jaunartzean jaso zuten, beste batzuek Gabonetan... baina berak oraindik ez zuen mugikorrik.

Bere gurasoekin asko haserretzen zen arrazoi horregatik, bere gurasoek esan zioten institutura joaten zenean oparituko ziotela mugikorra. Iraiak nabaritzen zuen bere gelakoak whatsappetik geratzen zirela eta mugikorrik ez zeukatenek talde horietatik kanpo gelditzen zirela. Horrek triste jartzen zuen. Bere gelakoak kaletik ikusten zituenean, beti ikusten zituen mugikorrarekin; mugikorrarekin jolasteko geratzen ziren.

Bere urtebetetze eguna iritsi zenean tablet bat oparitu zioten. Ez zen berak espero zuena baina pozik zegoen sare-sozialak instalatu ahal izango zituelako. Instagram eta Tik Tok instalatu zituen.

Bideoak ikusten zituen eta berak ere kontu bat ireki zuen marrazteko. Jende askok jarraitu zuen, bere marrazkiak asko gustatzen zitzaizkielako. Berak ere Instagrameko beste margolariak bezalakoa izan nahi zuen.

Egun batetan lagun berri bat egin zuen eta asko hizketan hasi ziren. Nerea deitzen zen eta biak herri berdinean bizi ziren, Lazkaon. Denbora bat hitz egiten pasata, erabaki zuten egun batean gelditzea.

Ostegun batetan gelditu ziren, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko plazan. Bere gurasoei ez zien ezer esan. Badaezpada bere deitzeko erlojua eraman zuen. Erloju horrekin deiak egin eta jaso daitezke, mezuak bidali eta nun zauden jakin dezakete zure gurasoek. Zazpirak arte gelditu ziren eta amari ordu horretan iritsiko zela esan zion. Plazara iristean Iraia konturatu zen, Nerea ez zegoela, baizik eta 50 bat urteko gizon ezezagun bat.

- Kaixo, nor zara? Nerearen aita? Galdetu zuen Iraiak.

- Bai noski, gure etxera eramango zaitut. Esan zuen gizonak.

Kotxera joan ziren. Iraia konturatu zen Lazkaotik ateratzen ari zirela.

- Baina nora goaz? Ez zarete Lazkaon bizi? Galdetu zuen Iraiak.

- Bai, baina sorpresa bat prestatu dugu, erantzun zuen gizonak.

Iraiak sumatu zuen zerbait gertatzen ari zela.

PROSA

Arratsaldeko zazpiak dira eta Iraiaren ama etxean dago kezkatuta. Bere erlojura deitzen dio. Iraiak deiari erantzuten dio.

- Iraia non zaude? Galdetzen du amak

- Nere lagun birtualaren aitarekin nago bere kotxean, laster iritsiko naiz Nerearen etxera.

- Nor da Nerea? Iraia etorri etxera segituan.

Gizonak dena entzun du eta kotxea gasolindegian batean gelditzen du, Iraiari erlojua kentzeko agintzen dio. Iraiak momentu horretan pentsatzen du hori ez dela Nerearen aita eta bahituta dagoela. Iraiak laguntza eskatu beharra zuen, oihuka hasi zen: laguntzaaaaa! lagunduuuuu!.

Bitartean bere amak erlojuaren kokapena aurkitu zuen eta Ertzaintzari deitu zion. Gasolindegian agertu ziren eta gizona eta Iraia aurkitu zituzten. Azkenean gizona atxilotu zuten eta Iraia etxera bueltatu zen.

Bere lagunei gertatutakoa kontatu zien eta esan zien sare sozialak buruarekin erabiltzeko, ez dakigulako nor dagoen pantailaren beste aldean.